



IVINAREN HARATONAKOAK

B. Pujana

D. Redondo

Zorionak Bilduma



Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren diru-laguntza jaso dau.

© Ibaizabal argitaletxea, 1995

ISBN: 84-7992-277-X

Legezko gordailua: BI-2145-95

Bilduma-diseinua: C.Monzón eta J.A. Tellaetxe

Tailer grafikoak: ZURE S.A.

MIXINAREN HARATONAKOAK

Egilea: Bibiñe Pujana

Marrazkiak: Daniel Redondo



MIXINA ESKOLAN

*G*aur astelehen buruzuri dan ezkerro, eskolan dagoz Mixina eta bere lagunak.

—*Zelango egun ederra daukagun gaur, eta gure gelako “begi-txapelak” oraindino itxita*—esaten dau Mixinak, pertsianak jasoten dauzan bitartean.

Berehala hasi dira sartzen eguzkiaren izpi distiratsuak. Esan leike inoiz baino indartsuago datozala, ikasleen aurpegi alai eta irribarretsuak argituz, lan egiteko gogoia gehituz.

—*Andereño Nekane etorri orduko, bakoitza bere lekuan!*—deiadarka esaten dau Ainarak.

—*Andereñoa? Andereñokeriak egiteko zeu zara zu nahikoa*—erantzuten deutso Kepak ahapetik.

—*Tira, tira, betiko kontuekaz ez gaitezan hasi barriro*—dino betaurreko-dun mutiko koskorrak.

—*Zer daukagu gaur lehenengo orduan, mate ala bizkuntza?*—itauntzen dau Anderrek oraindino erdi lotan dagoala.

Badirudi bat-batean danei berba egiteko gogoia etorri jakela.

Halango baten, ordurarte ixilik eta pentsakor egon dan Mixinari ere berba egiteko garaia heldu jako.

—*Ainara, ondo jezarten ahalegindu beharko zinateke.*

Ainarak badaki gure bizkarrazurrerako oso garrantzitsua dala ondo jezartzea eta orainarte izan dauan ohitura txar hori kentzen ahaleginduko da.



Andereño Nekaneren zapata-hotsa entzun danean ikasle guztiak ixildu egin dira. Izan ere, oso erreza da noiz datorren jakitea, oso berezia dalako ataraten dauan zaratea.

Gaur, inoiz baino dotoreago dator. Bere alkondara urdina bat dator jantzi dauzan zapatakaz, eta gaur, gainera, aspaldiko partez, gonea jantzi dau. Ikasleak gabonetan oparitu eutsien bola zuri biribildun idunekoa ere ipinita dakar.

Astelehenari hasierea emoteko, asteburuan etxean egindako lanak zuzenduko dabez danen artean.

Mixinak arazo batzuk izan dauz ariketak egiterakoan, horregaitik, besoa jaso eta andereñoari itaundu deutso:

—*Andereño, hirugarren ariketea ez dot ondo ulertzen.*

Andereñoak beti esaten deutse ondo ulertzen ez dabezan gauzak nasai-nasai itauntzeko argi eta garbi geratzen jakezan arte.

Ariketak zuzendu eta zalantza guztiak argitu ondoren, andereñoak esan deutse:

—*Orain marrazteari ekingo deusagu.*

Lanean dabilzala, Ainarak Kepari arpegi larria jarriz esan deutso:

—*Kepa, zure zaldia margotzen amaitzen dozunean, neureari ere buztana eta bankak egiten lagunduko deustazu? Bestela, zaldia barik hipopotamoak edo urtengo deust.*

—*Bai, hauxe amaitutakoan lagunduko deustut* —erantzun deutso Kepak.

—*Bai, neuri be baten batek apur bat laguntzen ez badeust gauerdirainoko lana izango dodala uste dot* —dino Mixinak, bere marrazkia amaitu ezinik dabil eta.



Driiinnn, driiinnn... entzun dabenerako urten dabe ikasleak jolastokira, ba-koitzak gogokoen daben jolasari ekiteko asmotan.

Ainara, Matxalen eta Mixina soka saltoan hasi dira. Kepa, Ander eta Peru atzo hasitako kanika partidea amaitzen dabilz.

Danak dabilz pozarren. Inguruetako txoritxoak ere abestu eta abestu dabilz, euren doinuz umeen jolasak alaitzeko asmotan.

—*Mixina, orain zeuk eragin apur baten eta nik salto egingo dot*—esan deutso Ainarak Mixinari.

—*Ondo da*—erantzun deutso Mixinak—, *pozik be jarraituko neukean bai-na... arrazoia dozu, jolasean txandaka ibili beharra dago.*


—*E, Peru hori tranpea da!*—ihardetsi deutso Anderrek Peruri, kanika gorria hartu dauanean.

—*Bai mutil, zagoz nasai, konturatu barik izan da*—esan eta arin itzi dau kanikea hartutako lekuan.

Konturatu orduko jolastorduari ere amaiera heldu jako. Ikasleak urteerako aurpegi irribarretsuakaz sartu dira barriri ikastolara.

Orain lanak amaitu, ordurarte erabilitako materiala jaso, arbela garbitu eta arratsaldera arte “Andereño!” esanez, bazkaltzera joango dira.





MIXINA IKUSKIZUNETAN

*M*ixinak asteburu honetarako planak eginda daukaz.

—*Gaur arratsaldean zinemara joango naz eta bihar goizetik museora; bietan daukat zer ikasi asko eta. Zineman, piratei buruzko pelikulea ikusiko dot, oso gogoko dodaz gainera abenturazko pelikulak eta bide batez, aukerea izango dot andereñoak aste honetan XVIII eta XIX. mendeetako itsasoko abenturei buruz esana, urruneko leku misteriotsuetan itsasgizonak egindako bidaiei buruz kontatua eta honeek erabilten ebezan belauntziei buruz azaldua ikusteko.*

Salako ordutegian bostak emon orduko urten dau Mixinak etxetik.

Zuzen-zuzen, eskaparatei begiratu barik, zinemarako bidea hartu dau; Mixinari holango lekuetara garaiz heltzea gustetan jako eta.

Semaforoan itxaroten dagoala, Iker eta honen ama Maritxu ikusi dauz.

—*Kaixo, arratsalde on!* —agurtu dauz Mixinak.

—*Aspaldiko! Nora zoaz ba, Mixina?* —itaundu deutso Maritxuk.

—*Zinemara* —erantzun dau Mixinak.

—*Tira ba, alkarregaz joan geintek ez orduan!* —esan deutso pozik Ikerrek Mixinari.

Txartelak hartu ondoren, inor molestatu barik, euren lekuetan jezarri dira.

Iker nahiko barritsua da eta ahalegin berezia egin behar izaten dau ixilik egozteko.



—*Mesedez, ixildu zaituz!* —hasarre arpegia jarriz esan deutso Maritxuk—. *Pelikulea ikusten etorri gara.*

Iker segituan ixildu da, jakin badaki eta pelikula bitartean ixilik egon behar dala.

Pelikulea amaitutakoan, astiro-astiro eta bultzaka ibili barik urten dabe zinematik. Pelikulea asko gustatu jake eta, gainera, piratak arrakadea eroatearen zergaitia ere ikasi dabe.

—*Hemendik aurrera guk ere gure adore eta ausardia adierazo behar doguzanean, arrakadea jarriko dogu* —dinotse Mixinak.

—*Nik behintzat ez, zeuek ipini beharko dozue!* —erantzuten deutso barrezka Maritxuk—. *Ausarta izan edo ez izan, nik beti erabilten dodaz arrakadak.*

—*Ba... egia da* —esan deutso Mixinak, Maritxuren belarrietara adi-adi begira gelditu dalarik, arrakadok lehenengo aldiz ikusiko baleutsoz lez. Gero hirurak barreka hasi dira.

—*Bihar zer egin behar dozu?* —itaundu deutso Ikerrek Mixinari.


—*Goiz partean museora joateko asmoa neban. Alkarregaz joango gara, ala?* —itaundu deutso Mixinak.

—*Primeran! Bihar arte, orduan.*

Hurrengo goizean museora joan dira. Bertan, hainbat koadro ikusi dabe.

Gerotxoago, museoan dagozan beste bisitariakaz batera, gidariak koadro batzuei buruz egindako azalpenak ere entzun dabez.

—*Koadro horretan margotuta dagoan esne botileak benetakoa dirudi ikutzeko gogoa ere emoten dau* —pentsatu dau Mixinak baina... orduan “Museoetan ikusi bai, baina ikutu ez” esaldia etorri jako burura eta urrunetik luze begiraturaz konformatu da.



Ume guztiei gertatzen jaken lez, Mixina eta bere lagunak jakinahia ere asezina da.

Areto nagusian antzerkia izango dala entzun dabenean, bertara hurreratu dira bizkor. Une batzuetan atean zain gelditu dira, saioa hasita dagoan ala ez esan deutsien arte. Orduan, hasteko zala jakitean, lehenengo jarlekuetaraino joan dira zuzen, bertatik hobeto ikusi eta entzun ahal izateko.

Saioa amaitzean, ikusle guztiak zutik gogotik txalotu dabe antzespen lana.

—*Hau bai ikuskizun polita!*—esan dau Mixinak.

—*Bai, eta gainera barre piloa ere egin dogu!*—erantzun deutso bere ondoran dagoan gizonak.

Mixinak oso goiz atsegina igaro dau eta aurrerantzean museoetara sarriago joatea erabagi dau.



MIXINA ELEIZAN

*A*rrosa koloreko logelan, lo gozoan dago Mixina. Halango baten... dang, dang..., eleizako dorreko kanpaiak iratzartu egin dabe.

Kanpai-hotsak amaituaz batera, sukaldetik amama Basiliaren kantua entzun dau Mixinak.

—*Egun on, amama!*—agurtu dau Mixinak bere amama.

—*Egun on, Mixina!*—erantzun deutso amamak mosu bat emonez.



—*Amama, bazoaz ala meza nagusira?*—itaundu deutso Mixinak bere amamari.

—*Ez laztana, gaur goizeko mezea entzun dot, gaur familiarentzat bazkari gozoa prestatu behar dot eta.*

—*Ene!*, —dino Mixinak irribarreka— *gaur Andra Mari eguna dogu eta! Gosaldu eta banoa arin-arin eleizea goraino bete baino lehen heltzeko.*

Domeketako erropa dotoreak jantzi eta hamabiak puntu-puntuan heldu da eleizara.

Ixil-ixilik sartu eta abadea ikusteko moduko lekuan jarri da. Bere eskolako lagunak ere hantxe dagoz eleizkizunean parte hartzeko prest. Danak altarera begira, egon ere, inoiz baino dotoreago dago gaur eta. Argi guztiak iziotuta dagoz, eta inguru guztiak lora zuriz apainduta.



Abesti hau kantatuaz emon deutso hasierea abadeak mezeari:

“Goazen guztiok batera
Jaunarekin egotera...”

“Maitasuna bakearekin batera
eskeintzeko nator eskua emotera.
Alkarturik gaudenean
Jaunaren aurrean,
bardin izan behar dogu
kalean.”



Abesti hau kantatzerakoan, ume guztiak pozik baino pozago alkarri bakea eskeintzen hasi dira. Izan ere badira mezatan zehar umeak gogoz eta gustoko dabezan ekintza batzuk.

—*Bakea zugaz* —esan deutso Ainarak Mixinari.

—*Baita zeugaz ere* —erantzun deutso irribarreka Mixinak.

—*Ze erreza dan bakea eskeintzea* —pentsatu dau Mixinak. Baina berehala jatorkoz burura eguneroko egunkarietan eta telebistako albisteetan entzuten eta ikusten dauzan gudak eta alkar ulertezinak—. *Zer egin neike nik bakearen alde? Behinik-behin, Andra Mari eguna dan ezkerro, Jesusen amari bere laguntza eskatuko deusat, amamaren esanetan, “Amabirjineak beti laguntzen dau eta”* —pentsatu dau Mixinak.

Bat-batean klank, klank diru-hotsa entzun izan da.





—*Otzarea pasatzeko ordua beldu da* —pentsatu dau Mixinak, eta goizean itsulapiko gorritik atara dauan txanpona atara dau poltsikotik otzaran botateko.

Gerotxoago, Jaunartzerakoan abesti hau abestu dabe eleiztar guztiak batera:

“Itsasoan nengoalarik
eguneroko jardun lanetan
igaro zinan nire ondotik.
Jauna begiratu egin nozu
hona hemen aditurik naukazu
gidaritzat nik hartuko zaitut.”

Unetxo bateko ixilaldiaren ondoren, mezearen azken otoitzak egiten dauz abadeak.

Gero, mezea amaitzeko, Andra Mariaren eguna ere badalako, gogotsu eskainiko deustie berari azken abestia.



MIXINAK KIROLA EGITEN DAU

—*E*guraldi aparta eta gaur gainera kirolak, iupiiii! —oihu eginez jagi da Mixina ohetik.

Mixinak kirola egin behar dauanean bere ama zoli joaten jako ogitartekoa eroaten.

—*Kirola egiteko ondo elikatu behar da!* —esaten deutso behin eta barriro.

Ordu t'erdian zehar tximinoak, lehoiak, katamotzak... oihaneko abere trebe eta arinak baino arinago ibili ondoren, dutxatzeko ordua heldu da.

Bainu ederra eta freskagarria hartu, erropa zikinak garbitzeko gorde dabez eta garbiak jantzi. Bitartean, kiroldegiko arduradunak lanari ekiten deusie: batzuk mangeraz bedarra ureztatu, beste batzuk erabilitako tresnak gorde... Darentzat dago zeregina.


Kiroldegira joaten diran egunetan danak ibiltzen dira ederto eta euren artean bromak egiteko eta jolaserako gogoa ere eukiten dabe.

—*Mixina, mangera honek ez dau urik botaten. Begiratu eiozu ea hor puntan ezer daukan?* —itaundu deutso Ikerrek.

Baina, bai zera! Mixinak begiratu dauanean... plaust! ur multzo itzela aurpegi!

—*Hau ez da holan geldituko, honek ekarriko dau bere bueltea* —dinotso Mixinak hasarre.

Eta zer egingo jako ba, Madrilen be umeak ume.



Jokoak, dantzak, musika saioak... danetarik dago aurtengo aste kulturaleko egitarauan; kirolak ere ugari.

Ez dira izaten alperrekoak ikasleak txapelketetarako forman egoteko urtean zehar egiten dabean ahaleginak.

Bakoitzak bere adinean eta modalidadean lehenengo postuetan egotea gura izaten dau beti. Egia esan, lehenengoa bat baino ezin leiteke izan, baina kirolari onak asko izaten dira.

*—Kirolari onak izateko —dinotse maisu Manuk— gogoan euki behar do-
zuez, orain esango deusuedazan abolkuak:*

Lehenengoa: garrantzitsuena ez da irabaztea, parte hartzea baino.

Bigarrena: meritua ez da batena bakarrik izaten, talde osoarena baino.

Hirugarrena: irabazleak ez harrotu, galtzaileak ez tristetu! Ez bata, ez bestea.

Laugarrena: danak egindako ahalegina txalotu.

Irakasle Manuren ikasgaiak ondo ikasi ondoren, hor doaz gure neska-mutilak arin baino arinago kiroldegira.


Partiduak denporarik galdu barik hasi dira.

—Hor joatzu pelotea! —deiadar egiten dau batek.

—Bale! Hartu zeuk barriro! —erantzuten deutso besteak.

Eta zuk bota, nik hartu, burutu dabez hainbat ekintza.

Mixina bera ere kirolzale amorratua da, horregaitik hartzen dau parte ahal izaten dauzan kirol eta joko mota guztietan.



—*Ba nik ez dot jolasten!*—dino halango baten Ainarak hasarre bizian.

—*Ba ez jolastu!*—erantzun deutso Asierrek—. *Tranpak egin dozuz eta hori onartezina da. Bai, onartezina!*

—*Ez da tranpea izan*—jarraitu dau Ainarak—. *Nik holan ikasi neban joko hau. Atzo ere, bardin-bardin egin neban eta ez eustan inork ezertxo ere esan.*

—*Ni egon banintz...!*—erantzun deutso Kepak.

Eztabaidea gero eta gogorragoa egiten doala ikusirik, Mixinak baloia eskue-tan hartu eta bakeak egiteko asmotan dinotse:

—*Kirolak edota edozein joko egiten hasi baino lehen, arauak ondo finkatu eta ikasi behar dira, gero holangorik gertatu ez daiten.*


Esaten amaitu dauan orduko euria hasi da.

—*Ba orain ezingo dogu jolasean jarraitu*—esan dau Ainarak.

—*Atzo liburutegian ipuin bat irakurten hasi nintzan eta ez dot amaitu oraindino. Zergaitik ez goaz liburutegira?*—proposatu dau Mixinak.

Eta orain bat, gero beste bat, danak liburutegirako bidea hartu dabe.

On egin dagioela!



MIXINA AUTOBUSEAN

*G*aur zapatua da eta zapatu guztietan lez Mixina kirola egitera doa. Mixina bere eskolako futbol talde bateko partaidea da eta zapatu oro beste eskola bartzuen kontra jokatzen dabe. Kirola egiteko erropak poltsan sartu eta bizkor doa kale nagusitik polikiroldegira doan autobusaren geltokira.

Han ilaran jarri da bere txandea heltzen jakonean autobusera igoteko.

—*Hau ez! Atzetik datorrena ere, ez da nirea!*—esaten dau autobusak geltokira heldu ahala.

Halango baten, urrun-urrunetik 15. zenbakia daroan autobusa ikusten dau.

—*Kontxo, badator gurea!*—dino ondokoak ere entzuteko moduan.

—*Ordua zan!*—erantzuten deutso ilaran dagoan ule luzedun neska batek.

—*Sartuko ete gara guztiok?*—itauntzen dau ilaran azkena dagoanak.


Autobuseko atea zabalduaz batera hasi dira sartzen.

—*Gaur, suerte apur bategaz jazarri egingo naz*—pentsatzen dau Mixinak.

Eta halantxe gertatu da. Jazarri eta bere autobuseko txartela gorde egin dau.

—*Poltsa barrura!*—esan dau berekiko, eta, behinola amama Basiliak kontatu eutsan “Txartel geldi egon ezinaren” ipuina jatorko burura.

“Bazan behin autobusean batetik bestera ibiltea gura izaten eban txarteltxo bat...”



Ondo baino hobeto doa Mixina autobusean.

Leihotik begiratu eta gauza asko ikusten dauz: etxeak, zuhaitzak, aparkatuta dagozan kotxeak, jendea... danak mugimenduan. Esan leike autobusa geldi da-goala eta mugitzen diranak beste guztiak dirala.

Bat-batean driiiiiinn... driiiiiinn... bidaiari batek autobuseko txirrina jo dau.

Kale nagusiko hirugarren geltokira heldu dira eta bidaiari batzuk jaitsi eta beste batzuk igon egin dabe, euren artean amamatxo batek ere bai.

Atsoak txartela hartu eta Mixinaren parera heldu dan orduko:

—*Jezarri neure lekuan, amamatxo* —esanez, Mixinak bere lekua itzi deuto.

—*Eskerrik asko, maitea, asko estimatzen deutsut* —erantzun deuto amamatxoak.

Atsoa jezarri eta Mixinagaz berbetan hasi da:

—*Eta nora zoaz ba, laztana?*

—*Polikiroldegira, partidu bat jokatzera.*

—*Partidua? Ta zer partidu?*

—*Ba, futbol partidua.*

—*Nire lobeak ere futboleanean jokatzen dau eta batzuetan neu ere ikustera joaten naz.*

—*Hurrengo geltokian gelditu behar dot eta banoa apurka-apurka aterantz. Beste batera arte,* —agurtu dau Mixinak amama.

—*Agur bai. Sorte ona izan eta ea irabazten dozuen!* —esan deuto amamak bizi-bizi.



Mixinak autobusa hartu dau barrero etxera joateko. Ez dator oso pozik.

—*Mixina, galtzen ere jakin egin behar da*—pentsatzen dau Mixinak bere barrurako.

Bere ondoan jezarrita dagozan bidaiariak irakurten diharduen bitartean, Mixina begiak itxita dago.

—*Inoiz baino hobeto jokatu eta gaur ere galdu! Horixe bai zorte txarra!*
—dino bere barrurako—. *Hurrengo baten izan beharko dau!*



Konturatu barik azkeneko geltokira heldu dira eta Mixina eta gainerako bidaiariak ere autobusetik jaitsi dira.

Autobuseko gidariak ere urten egiten dau atsedenaldira bat egiteko, eta hurrean dagoan tabernara sartu da zeozer hartzeko.

Halango baten, autobusa margotzeko asmotan pintura potea eta pintzela eskuan daroiazan mutil bat ikusi dau Mixinak.

—*E, mutiko! Autobus hori danona da eta danon zeregina da txukun mantentzea*—esan deutso Mixinak aurpegi txarrez.

Mutilak ez dau holangorik itxaron eta, apur baten Mixinari begira gelditu ondoren, bertatik alde egin dau.



MIXINA IBILALDIAN

*H*eldu da udabarria, horregaitik, sugeak neguko loalditik iratzartu eta eguzkitara urtengo daben antzera, eskolako umeak ere ibilaldia egiten urtengo dabe.

Mixinak mendirako botak jantzi dauz, motxilea lepoan hartu eta bere amama agurtu dau esanez:

—*Banoa, amama, prest nago.*

—*Gero arte, laztana. Mendirako beharrezkoa dan anoraka eta gainetiko guztiak hartu dozuz?* —itaundu deutso amamak.

—*Bai, amama, baina banoa autobusera garaiz heldu gura dot eta.*

Eta holango egunetan gertatzen dan lez, ez Mixina bakarrik, beste guztiak ere garaiz heldu dira.


Autobusera igoteko orduan ilaran jarri dira.

Bakoitza bere lekuan jarri danean, bidaian bete beharko dabezan arauak azaldu deutsiez autobuseko gidari lodikoteak. Esan beharrekoak esan ondoren, martxan jarri dira eta, orduan, andereñoak mikrofinoa hartuta esan deutse:

—*Gaur bidean goazala gauza eder asko ikusteko aukerea eukiko dogu eta, gainera, ikastolan ikasitako abestiak ere abestuko doguz.*

Halango baten, bidean aurrera doazala:

—*Ene! Zelango gaztelu polita!* —dino Ainarak sudurra leihoko kristalean ezarririk.



—*Bai, Drakulearena da*—erantzuten deutso Anttonek azkeneko jezarlekutik adarra jo gurean.

—*Mixina, gaur txindurritegiren bat aurkitzen badogu eurei buruz ikerketa bat egingo dogu, bai?*—itaundu deutso Anderrek.

—*Bai horixe!*—erantzun deutso Mixinak jezarlekuan salto eginez.

—*Ene, begiratu!, zuhaitz horretan bele bi dagoz*—dinotse Mixinak lagunei.

—*Egia da! Goazen andereñoari esaten eta ea beleei buruz zer kontatzen deuskun*—erantzun deutso Matxalenek.

Beleak ikusiaz batera andereñoak esan deutse:

—*Beleak kantuan hasten diranean, hurrengo egunean bego-baize izugarria izango danaren seinalea izaten da.*

—*Baina andereño, hori holan ete da?*—itaundu deutso Peruk pentsakor.

—*Euskal Herrian sineskera asko daukagu eta belearena ere sineskerea da.*

Inguruko eleiza eta monumentuak ikusi ondoren, badoaz bazkaltzeko leku egokia bilatzera. Erreka bazterrera heldu diranean, andereñoak esan deutse:


—*Hementxe geldituko gara, oso leku polita da eta. Zer deritxazue?*

Entzun bezain laster, umeak motxilak zuhaitz ondoan itzi, eta saltoka hasi dira jolasten.

Halango baten, dorre baten itxura daukan zuhaitz zahar baten kolore bizidun tximeleta bi ikusi dauz Matxalenek.

—*Ainara!*—esan deutso besotik helduta—. *Goazen atzetik, ea euren herrialdera eroaten gaituen.*

—*Bai, bai, goazen*—erantzun deutso Matxalenek.



Eta joan eta joan, konturatu barik urrundu egin dira eta ez dabe bueltarako biderik aurkitzen. Nahiko urduri jarri dira, eskerrak halango baten basozaina agertu jakela.

—*Basozain jauna, gure lagunengandik urrundu egin gara eta orain ez doguz aurkitzen* —esan deutso kezkatuta Matxalenek.

—*Goazen ba, neuk lagunduko deusuet* —esan deusie basozainak—, *baina adi-adi entzun eta betirako ikasi, "Taldetik ez da inoiz ere urrundu behar"*.

Poz pozik jarri dira Ainara eta Matxalen euren lagunak barriro aurkitu dabezanean.

—*Mixina, itzi baloia eta bizkor mahaia prestatzera* —dinotso Ainarak.

—*Mahaia... ja, ja, ja! Ez dozu ikusten ala hemen mahaiarik ez dagoala? Gaur lurrean jezarrita bazkaldu beharko dogu* —erantzuten deutso Mixinak.

—*Tira, bardin da, bardin da* —dino Matxalenek—, *leku honeetan irudimena erabili behar da*.


—*Bai, bai...* —esaten deutso Kepak burla eginez— *irudimena asko erabili bai eta gero basoan galdu*.

Matxalenek begirada zorrotza bota deutso Kepari, baina ez dau ezertxo ere esan.


Zamau handi bat zabaldu dabe lurrean bertan janaria eta edariak jarteko eta haren inguruan jarri dira bazkaltzeko prest.

Nork baino nork janari gozoagoa ekarri dabe eta, nik zuretik eta zuk niretik ibili dira gure neskato-mutikoak janariak dastatzen. Sabelak bete ondoren esan dabe:


—*Lehenengo gauzak batu, leku hau lehen egon dan bezain garbi itzi eta gero... jolastuuuuu!*



Mixinak ingurugiro atseginago baten bixitza lortzeko jarraitu beharko geunkezan jarrerak bultzatu gura dauz. Horretarako Mixinak, bai eskolan, museoan edo elizan dagoala, bai kirola egiten edo ibilaldi baten, jarraitzen dauan jokaerea agertzen deusku.



- 1 Ipuin Unibertsalak
- 2 Zirkuko Itzalak
- 3 Gabonetako Ipuinak
- 4 Basoan
- 5 Bibliako Istorioak
- 6 Mixina
- 7 Mixinaren Haratonakoak
- 8 Zorrionak



Zorionak Bilduma